

# elkar

UDAZKENA 2015  
41. ZENBAKIA  
[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)



*Hau da despedidía*

## OSKORRI

+

### UN ACTO DE AMOR

o sobre libros en euskera traducidos al castellano

### JEAN MIXEL BEDAXAGAR

Zuberoako ahots tradizioaren transmitzaile

### IZEN PROPIOAK:

Manu López Gaseni · Roge Blasco · Patxi Zubizarreta · Karmele Jaio · Alaine Agirre  
Joseba Larratxe · Imanol Ubeda · Oier Guillan · Jon Alonso · Leonardo Padura · Begoña Ibarrola





# POLTSÁ

## BERRERABILGARRIA

### BOLSA REUTILIZABLE



0,90€

**elkar**  
[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**- %50**

elkar Txartelarekin  
Con la Tarjeta elkar




**ALGORTA (GETXO)**

 Tellebte 11  
 944 91 66 16

**ARRASATE**

 Erdikokale 14  
 943 79 7829

**BAIONA**

 Arsenal plaza  
 559 59 35 14

**BASAURI**

 Dr. Jose Garai 11  
 944 26 13 84

**BERGARA**

 Ibagarai 7  
 943 76 40 50

**BILBO**

 Licenciado Poza 14  
 944 43 47 08

 Iparragirre 26  
 944 24 02 28

 Zamudioko ataria  
 Zazpi kale  
 944 16 14 50

**DONOSTIA**

 Fermin Calbeton 21  
 943 42 00 80  
 Fermin Calbeton 30  
 943 42 26 96

 Bergara 6  
 943 42 63 50

**GASTEIZ**

 San Prudencio 7  
 945 14 45 01

 Apraiztarrak 1  
 Campus  
 945 14 16 70

**HERNANI**

 Kale Nagusia 30  
 943 55 15 37

**IRUN**

 Colon pasealeku 8  
 943 63 17 26

**IRUÑEA**

 Comedias 14  
 948 22 41 67

 Larraona z/g  
 Golem erakina  
 948 17 55 53

**TOLOSA**

 Arostegieta z/g  
 943 67 35 33

## DURANGOKO AZOKA ETA EGUNKARIA, EREDU

Euskara eta euskal kultura indartzeko garaian berebiziko garrantzia izan dute gizartetik sortu izan diren ekimenek; behar edo hutsune baten aurrean elkarti, indarrak bildu eta proiektu bat martxan jartza ohikoa izan da Euskal Herrian. Horrela sortu zen **elkar** bera, eta antzeko bidea egin zuten aurten urteurren borobilak dituzten **Durangoko Azokak**, duela 50 urte, eta  **Egunkariak**, duela 25 urte, (azken hori gaur egun **Berria** izenarekin ezagutzen badugu ere, ezin ukatu 1990ean martxan jarritako haren jarraipena denik).

Euskaraz bizi nahi izan duenak beti izan ditu urri horretarako aukerak, baina kultur munduan luzea izan da horri begira gauzatutako ekimena, eta ekimen guztiei esker ditugu euskara eta euskal kultura dauden lekuaren. **Gerediagak Durangoko Azoka** martxan jarri eta 50 urtez euskal kultura indartzeko egindako ahaleginak gabe, euskal liburu eta musikaren ikusgarritasuna ez zen gaur dena izango; eta beste horrenbeste gertatuko zatekeen gure eremu komunikatiboan euskal egunkaria ez balitz gauzatu.

Bi eredu dira, bi eredu handi eta garrantzitsu, beste asko bezalakoak, ezina ekinez egiten dela erakusten digutenak eta sekulako ekarpena egin dutenak. Zorionak eta urte askotarako.

## LA FERIA DE DURANGO Y EGUNKARIA, REFERENTES

Las iniciativas surgidas desde la propia sociedad tienen una gran relevancia a la hora de dar impulso al euskera y a la cultura vasca; en Euskal Herria es habitual que nos unamos ante una necesidad o un vacío, que aglutinemos fuerzas y pongamos en marcha nuevos proyectos. Así fue como nació el propio **elkar**, y similar recorrido han realizado, celebrando este año aniversarios redondos, la **Feria de Durango**, que cumple 50 años, y **Egunkaria**, que llega a los 25 (si bien hoy día conocemos este último con el nombre de **Berria**, no podemos negar que es la continuación de aquel diario que se puso en marcha en 1990).

Aquellos que han querido vivir en euskera, siempre han tenido que hacer frente a una escasez de oportunidades; sin embargo, en el ámbito cultural han abundado las iniciativas, y gracias a todas ellas se encuentran hoy el euskera y la cultura vasca en el lugar en el que están. Sin el esfuerzo de **Gerediaga** por poner en marcha la **Feria de Durango**, y fortalecer así durante 50 años la cultura vasca, la visibilidad del libro y la música vasca hoy no sería la que es; y otro tanto habría sucedido en nuestro ámbito comunicativo si no se hubiera sacado adelante el diario en euskera.

Son dos referentes, dos modelos relevantes, como otros tantos, que han supuesto una gran aportación, y que nos muestran que las dificultades se superan actuando. Zorionak, y larga vida a todos ellos.

## Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

### POSTDATA bloga

- Reportaje de Javier Pascual sobre los mil y un senderos de Euskal Herria (Sua).

### FACEBOOK

#### Biralitate handiena lortu duten

#### euskarazko sarrerak:

- **elkar** liburu-dendetako udako erakusleihoa eta poltsa berrerabilgarri berriak.

#### Lo más leído en castellano:

- La Revista **elkar** de verano.

- Elustondo taldearen "Bidaia handiak" bideoa (Elkar argitaletxea).

#### Contenido más viral en castellano:

- Sorteo del libro *Monteperdido* de Agustín Martínez (Plaza & Janes).

- Propuesta de la editorial RBA sobre su colección Serie Negra.

### TWITTER @elkar

#### Interakziorik handiena

#### eragin duten euskarazko sarrerak:

- Doako bidalketak **elkar** "dendan jaso" eta hapiick zerbitzuaren bitarbez.

- Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeak udan irakurtzeko hainbat libururen gomendioa Hamaika Telebistan.

#### Contenidos más interactivos:

- Firma del libro *Algo tan sencillo como tuítear te quiero de Blue Jeans* (Planeta) en **elkar** de Donostia.

- Presentación del libro *Indomable* de Fatima Djarra (Ediciones Península).

**La segunda entrega de la saga  
La chanson de los Infanzones.**

**BEGOÑA PRO URIARTE**

**La DAMA del VELO  
y el LAUREL**

Novelas de capa y espada  
en la Navarra del siglo XII.

Disponible en ebook

**WWW.TARTTALO.EUS**



# AGUR, OSKORRI

GOIKO ARGAZKIA ETA AZALEKOIA: JUANTXO EGAÑA

**Oskorrik uda hasieran bere agurra iragarri zuenetik, bolo-bolo dabiltza han eta hemen euskal kulturari eta gizarteari hainbeste eman dion taldearen inguruko oroitzapen, hausnarketa eta gorespenak. Ia 45 urtez Euskal Herriko bazter guztietara euren musika eraman ondoren, motxilan kilometroak milioika eta ikertze eta saiakera ordu amaigabek pilatu dituzte.**

**3.000 inguru kontzertu eman eta 500 bat kanta grabatu ondoren, aurten adio-agurra luzatzea erabaki dute Natxo de Felipek eta bere taldekideek. Eta gehien maite duten moduan joatea erabaki dute: abestuz, joz, gozatzuz eta gozaraziz. Taula gainean. Oroitzapen eder zerrenda luzeaz eta lagun berri nahiz zahar pilarekin.**

## OSKORRIEN BAZKALOSTEA

Ez da egia Oskorri berrogaitazak urtez aritu denik euskal musikagintzan, nork sinesten du, nork ez du aditu haien musika jaio zenetik, are gehiago, jaio aurretik ere, ezer ez zenean... Susmoa da, orokorra, betidanik egon izan dela Oskorri eta, dudarik ez, beti izango dela... Bernat Etxeparek berak aditu zuen 1545. urtea baino askoz lehenago, sumatu zuen, baina poetarik mingotsenek ere umetarik aditu zuten, Gabriel Arestik, esate baterako, Natxo de Felipe ezagutu baino dezentz lehenago. Alemanian aditu zituzten Oskorriren kantuak, bestetik, Txilen, Katakunbetan, Errusiako iraultzan, Kalbario mendian, pubetan, sedentarioetan,

ibiltarietan, pubak asmatu baino lehenago ere. Guztialein, lan handiegia ere ez da egin behar gazte bat imajinatzeko ehun eta bi urte barru, logelan, tabernan, bulegoan, ikastetxean, musika-aparatu oraindik ez asmatuan, botoirik gabekoan, garunean txertatuan beharbada, "Euskal Herrian euskaraz" kantua aditu eta bere buruari galdetz zer ari ote den Txinan lanean, Alemanian ikasten, hitzaldiak ingeles txarrean esaten, ergatiboa noiz eta non jarri behar den ahaztu duenean.

Gure belaunaldiko umeok Oskorri aditzen genuen Oskorri zela jakin gabe, guretzat "Furra, furra" zen, "Aita-semeak", gora eta gora esaten genion Lapurdirik, Lapurdi zelakoia zer zen lar ondo jakin gabe ere; euskal kantuak ziren guretzat, ikastolan eta edonon kantatzen genituenak, betiko txertatzen zitzazkigunak. Bainagoa daukat ikastolan bertan izan nuela Oskorri izaren berri, izanaren berri, diskoak –biniloak– trukatzen hasi ginenean. U2 taldearen diskoa utzi nion lagun bat, *The Joshua tree*; Oskorriren *In fraganti* utzi zidan trukean. Han, besteak beste, "Ostatuko neskatxaren koblak". Sentimendu bat daukat gogoan: zelako nekeza egin zitzaidan diskoa lagunari itzultzear...

Harrezkero gure belaunaldikoekin batera joan da Oskorri, Oskorrik eman dituen letrak... Esate baterako, "Insumisoarena" soldadutzara joan ez joan atakan geundunean argitaratu zen, "Euskaldun berriaren balada" euskaltegietan eskolak ematen genituenean aditzen genuen eta, horreraz guztiaz gainera, gure herrira etorri ziren sasoi horretan euren 25 kantu urteak ospatzera, Fadurako kirodegira... Han egon ginen, jakina, eta diskoa gozatu genuen gero, eta sinistu gure txaloak horren guztia parte zirela.

Horregatik zorabiatu nintzen ia *Desertore* lanerako hiru letra egiteko deitu zidatenean... Nire maisuen ondoan jesartzeko aukera eman zidaten orduan: Aresti, Amuriza, Sarasua, Egaña, Cano... Besoa euskal

## ESKERRIK ASKO, OSKORRI!

Ia 45 urtez Euskal Herrian eta hemendik kanpo euskal musika zabaltzen aritu ondoren, Oskorrik agurra iragarri du eta *despedida* antolatu du udazkenerako.

Eskerrik asko, hainbat belaunaldi euskal kantuak abesten jartzeagatik. Eskerrik asko haurrek ere euskal kantua erakartzeko egindako ahaleginagatik. Eskerrik asko egungo euskal idazle eta poeten testuak musikatu eta ezagutarazteagatik zein kantu zaharrak biziberritu eta zabaltzeagatik. Eskerrik asko, beraz, Oskorri, urteotan euskal kantagintza modernizatzeko eta bizirik iraunazteko egindako lanagatik. Euskal Herriak asko jaso du zuengandik eta hori guztia du gogoratu eta eskertzeko.

Eta Euskal Herriak bezala, **elkar**-ek ere badu zer eskertua. Urte luzez, elkarren konfiantzan eta leialtasunean egindako elkarlanaren ondorioz, jarraituko dugu Oskorriren doinuez gozatzen. Eskerrik asko, Oskorri.

**elkar** Fundazioa

musikaren sorbalda gainean sentitu nuen, euskal kulturaren bazkalostera gonbidatu ninduen Oskorrik...

urte barru ere, oskorriak janda elikatzen jarraituko dute euskal umeek...




**UNAI ELORRIAGA**  
Idazlea

## Getxon hasi zen "HAUXE DA DESPEDIDIA"...



GETXOKO KULTUR ETXEA



## HURRENGO KONTZERTUAK

**BAIONA.** Urriak 10  
Lauga Kiroldegian, 18:30etan

**GASTEIZ.** Urriak 17  
Mendizorrotza Aintzina Folk, 20:00etan

**DONOSTIA.** Urriak 25  
Victoria Eugenian, 20:00etan

**BARTZELONA.** Urriak 30  
Centre Artesà Tradicionàries, 22:00etan

**IRUÑEA.** Azaroak 7  
Baluarten. Nafarroa Oinez, 20:00etan

**MAULE.** Azaroak 14  
Jai Alai Frontoian, 18:30etan

**BILBO.** Azaroak 22  
Arriaga Antzokian, 12:30 eta 19:00etan

Joseba Martin irratia  
esatarriaren artikulua:  
<http://bit.ly/oskorri-ibilbidea>





**ROGE BLASCO**  
Periodista

## Proposamena

### LO QUE TENGO QUE CONTARTE

En septiembre de 1615 un temporal destrozó tres barcos balleneros vascos frente a la costa de Islandia. Los marineros se refugiaron en los fiordos durante varios meses. Los locales se enfrentaron a ellos pues pensaron que se querían apropiar de la pesca. El sheriff mandó asesinar a los 32 pescadores, todos ellos guipuzcoanos. La periodista, escritora y cineasta de Iruña Julia Montejo novela estos hechos históricos en su cuarto centenario.

Los sucesos se desarrollaron en la región de Vestfjord. Una tormenta acabó con tres naves balleneras vascas en víspera de su regreso a casa. Se quedaron atrapados

sin víveres en el invierno ártico. Pero en su intento de buscar sustento, chocaron con los islandeses, súbditos por aquel entonces del rey danés Cristian IV. La masacre la ejecutó el alguacil Ari Magnusson. Aquel mismo año, Jon Gudmunsson escribió un ensayo sobre el naufragio y la matanza de los balleneros. Parece ser que los 40 supervivientes acordaron un pacto de silencio y no contaron nada de estos hechos por las tierras vascas.

Julia Montejo nos cuenta cómo eran de rudos los marineros que se alistaban a la caza de la ballena, cómo eran los asentamientos en tierras islandesas y las buenas relaciones que había entre

vascos y locales. Incluso existía el idioma pidgin o lengua franca, mezcla entre euskera e islandés.

Asimismo, la autora recuerda cómo fueron los acontecimientos históricos del enfrentamiento entre islandeses y vascos y cómo éstos fueron descuartizados. La novela está protagonizada por Amaia Mendaro, una artista actual, que recuerda la historia de Amalur, una muchacha travestida de hombre que pasa como grumete para embarcarse en la caza de la ballena. Gracias a su cultura e inteligencia, se hace valer entre la marinería. Amaia le cuenta al relato a Asier, un escritor donostiarra en busca de una buena historia.



**LO QUE TENGO  
QUE CONTARTE**  
Julia Montejo  
LUMEN

## Profila LEWIS CARROLL

### ZENTZUGABEAREN HERRIALDEA SORTU ZUEN IDAZLEA

Charles Lutwidge Dodgson, Lewis Carroll eizenez ezaguna, 1832an jaio zen Daresbury herrian, eta 1898an hil, Guildford-en. Bere bizitzan zehar gauza asko egin zituen: diakonoa izan zen, logika eta matematika irakaslea ere bai; argazkigintzan aitzindaria izan zen; Alice Liddell-ekin maitemindu zen; neskato haren omenez literaturaren historiako liburu garrantzisuenetarikoa bat idatzi zuen; *nonsense* edo zentzugabea deritzen baliabide literarioa asmatu zuen...

Aliziaren zikloko obrek eman zioten mundu mailako ospea Lewis Carroll-i. Kronologikoki, Carrollek idatzi zuen lehen *Alice's Adventures Underground* (Aliziaren abenturak lurrazpian) izan zen, Liddell ahizpea txalupa-txango batean kontatu zien istorioaren lehen idazkia, Alice Liddell-i 1862ko Gabonetan oparitzeko eskuz idatzia eta ilustratua; hala ere, 1886 arte ez zen argitaratu.

Eskuizkribua irakurri zuten adiskide batzuek adoretuta, Carrollek testua berridatzi eta *Alice's Adventures in Wonderland* argitaratu zuen 1865ean, duela 150 urte. Horixe izan zen zikloko testu kanonikoa, literaturaren historiari igaroko zena (duela gutxi euskaraz



**MANU LÓPEZ GASENI**  
Itzultzalea (Carroll-en euskalzalea)

edizio berritu batean argitaratua: *Alizia herrialde miresgarrian*, Pamiela, 2015). Testu ezagunaren arrakasta ikusita, Aliziaren abenturen bigarren partea idaztea erabaki zuen: *Through the Looking-Glass, and What Alice Found There* (1872); obra horren euskal itzulpen bakarra 1990ean argitaratu zen: *Ispiluan barrena* (eta Alicek han aurkitu zuena) (Pamiela).

Zikloa ixteko, Aliziaren abenturak klasiko bihurtu zirela ikusirik, 0-5 urte bitarteko haur txikientzako egokitzea pentsatu zuen. Horrela sortu zen *The Nursery Alice* (1889), *Alizia haurrentzat* (Pamiela) euskalzalea bertsioan.

Aliziaren ziklotik kanpo, beste hainbat liburu argitaratu zituen Carrolle; ez aurrekoak bezain ezagunak, ordea. Horietariko bat *The Hunting of the Snark* (1876) poema narratiboa da, *Ispiluan barrena-n* agertzen den "Jabberwocky" poemaren oinarrtitutakoa eta, hura bezala, *nonsense*-aren bidetik. Carrolen beste obra ezagun bat *Sylvie and Bruno* (1889) eta haren jarraipena *Sylvie and Bruno Concluded* (1893) bi atalatan argitaratutako nobela da. Horietaz gainera, matematikari buruzko dozena bat liburu idatzi zituen, bere benetako izenaz sinatuak, gehienak idazlea hil eta gero argitaratuak.



ANJEL LERTXUNDI IDAZLEA

MUGA-mugan

## GENEROEN MALGUTASUNA eta beste LIZENTZIA asko

Eremu, muga, neurri eta lege jakinik gabeko letretan barrena

Muga. Elkarren ondoan dauden bi errealitate edo gehiago bereizten dituen irudizko marra. Generoen artekoa, adibidez. Oraintsu arte, garbi geneukan: hau nobela bat da, hau poesia, hau drama... Gaur, ordea, lausoak dira generoen arteko mugak, inoiz baino protagonista goa da irakurlea.

Orakulo baten iragarpenean literariotzat ere har litezke Italo Calvink *Seis propuestas para el nuevo milenio* (Siruela) liburuko proposamenak orain hamabost urte estreinatu genuen milurterako. Arintasunarena zen lehendabiziko proposamen/iragarpena: zer-nolako gizartea datorkigun ikusita —trenpu eta asti handirik gabea hausnarketarako, di-da bateko soluzioak behar dituena...—, Calvink literatura arinaren praktika aholkatzen zuen, bai idazterakoan, baita generoen malgutasunari dagokionez ere. Calvink proposatutako literatura ez da itxia eta genero estuen kortsearekin lotua, irekia baizik, bidea arin egiten duena, esandakoari adina garrantzi ematen diona iradokizunari...

Generoen kortsearen auzia ez da, inondik ere, gaurkoa. Generoko obrak seguru sentiarazten gaitu, ezagutzen ditugu arauak, badakigu nora eta nola eramango gaituen. Baino Denis Diderotek 1772 urtean idatzitako *Hau ez da ipuina* (Literatura unibertsala, Ibaizabal) kontakizun edo dena delaok titulutik beretik abisatzen dio irakurleari: eskuetan duzun testuak ipuin baten itxura du, bai, baina zer ipuin arraio ote da irakurlea —zu edo ni— pertsonaiatzat hartu eta harekin hizketan hasten den testu bat? Bide beretsutik, Luigi Pirandellok antzerkigintza irauli zuen *Sei pertsonaia autore bila jarriz* (Literatura unibertsala, Alberdania & Elkar). Nobela "denetarik kabitzen den zaku bat" dela defendatzen zuen Pío Barojak, eta denetarik sartzen zuen bere nobeletan, diskurtso filosofiko luze-luzeak barne, *El cura de Monleón* (Caro Raggio) lekuko. Orain gutxi David Markson idazle sailkagaitzak Esto

*no es una novela* (La bestia equilátera) liburu sailkaezina argitaratu zuen. Zertaz den? Hartu ehunka idazle eta artistaren heriotza inguruko datu eta data batzuk, aukeratu haien hainbat esaldi eta bitxikeria, ordenatu guztiek collage baten eran, eta horra Marksonen liburua. Ez pertsonaiarik, ez gatazkari, ez haririk. Irakurlea baino ez, jakin nahian zer daukun esku artean. Adar-jotze bat, agian. Jeniala, nolanahi ere. Eta, tartean, Marksonek historiari egindako keinu jolasti bat: *Ceci n'est pas un conte*. Denis Diderot. 1772. *Ceci n'est pas une pipe*. René Magritte. 1928. *Ceci n'est pas un roman*. David Markson. 2001.

Julio Ramón Ribeyrok *Prosas apátridas* (Seix-Barral) deitu zion bere liburu ezagunenari. Ez zekien prosa labur finez osatutako liburua zein generotan sailkatu. Testu aberririk gabeak ziren. Hortik *apátridas* deitzearena. Ez da bere lana nola sailkatu ez dakien kasu bakarra. Juan Antonio Masoliverren *El ciego en la ventana* ere (Acantilado) dietario moduko liburu sailkagaitza da. Bertan narratzaile neutro batek diosku: "Ez ziren memoriak, ez zen egunkari bat, ez zen aforismo liburu bat, ez zen ipuinbilduma bat, ez zen nobela bat. Obsesiboki idazten zuen, zer idazten zuen jakin gabe". Masoliver bere lanaz ari da noski.

Ez nioke testu sailkagaitzen erreparasoari giltza eman nahi aipatu gabe Karlos Linazasororen *Literatura hiztegi tekniko laburra* (Elkar), bikaintasun ironiatsuz landutako liburu ugaria. Bertako testu on askoren artean, antologikoa eta algara batean irakurtzen dena, hitzurrea. Ez galtzekoa.





A comienzos del siglo XX, no muy lejos de Lyon, un niño transformaba su bicicleta en avión adaptándole dos alas hechas con una sábana: 'Cuando consiga despegar, la muchedumbre gritará: ¡Viva Antoine de Saint-Exupéry!'. Aquel niño soñador llegó a ser piloto comercial y postal, enlazando Toulouse con Rabat y Dakar, y así lo reflejó en obras como *Tierra de hombres*, *Vuelo nocturno* o *Piloto de guerra* (*Gerrako pilotu*). La multitud ya le aclamaba cuando intentó batir el récord de velocidad entre París y Saigón, aunque cayera en el desierto de Libia. Realizó un segundo intento entre Nueva York y Tierra de Fuego, pero sufrió un grave accidente del que nunca se recuperaría. Al final, refugiado en Nueva York tras la firma del

# El PRINCIPIO

Cumple más de 70 años

Vuela a las profundidades



armisticio por parte de Francia, escribió una obra fantosa e inesperada que, no obstante, se convertiría en una de las más celebradas de la literatura universal: *El Principito*.


Anteriormente, en Buenos Aires, el piloto convencía a Consuelo Suncín —su rosa— para volar y presenciar un atardecer incomparable. Aprovechó para pedirle matrimonio, pero ante la negativa de la mujer, apagó los motores y se precipitó hacia el Río de la Plata... *El Principito* también tiene algo de descenso a nuestro ser más íntimo, algo de atardecer de otoño: sólo él fue capaz de contemplar cuarenta y tres puestas de sol en un día...

las apariencias y las cifras por la duda, la espontaneidad y la sensibilidad; porque, la infancia, más que una etapa cronológica, es un estado del alma. La obra entusiasmó a Anaïs Nin, Orson Welles o James Dean, pero también fue tachada de demasiado filosófica por Roal Dahl o de anticuento por Carlo Frabetti. El piloto le prometió una segunda parte con menos espinas a Consuelo Suncín, pero, como el Principito en el desierto, desapareció antes en una misión de reconocimiento en la costa de Provenza.

#### PATXI ZUBIZARRETA

Escritor

(Con la traducción Printze Txikia, el autor fue galardonado con el premio de traducción Vitoria-Gasteiz)



**El Principito (cómic)**  
Joann Sfar  
SALAMANDRA



**Memoria jokoa**  
TTARTTALO  
(+4 urte)



**Domino-jokoa**  
TTARTTALO  
(+4 urte)




**Star magnifier**  
THE LITTLE PRINCE  
(+3 urte)



**Printze Txikia**  
Antoine de Saint Exupery  
ELKAR



**Friendship diary**  
THE LITTLE PRINCE  
(+6 urte)





**Dominó**  
THE LITTLE PRINCE  
(+3 años)



**Memo**  
THE LITTLE PRINCE  
(+3 urte)



**Puzzle**  
**The garden of roses**  
THE LITTLE PRINCE  
(+14 urte)



**Draw me a sheep**  
THE LITTLE PRINCE  
(+6 urte)



**Double play galaxy games**  
THE LITTLE PRINCE  
(+4 urte)



## AMSTERDAM AKRILIKOA ESKAINTZA

Kaxaren jatorrizko prezioa:  
20 euro

ELKAR TXARTELArekin:  
16 euro

Promoziola baliagarri urriaren 31 arte!!  
Stock-a amaitu arte



<http://bit.ly/elkar-paper>

## ACRÍLICO AMSTERDAM PROMOCIÓN

Precio original del kit:  
20 euros

Con ELKAR TXARTELA:  
16 euros

Oferta válida hasta el 31 de octubre!!  
Hasta fin de existencias

Ebaki promozioa puntuen lerroa jarraituz eta eraman elkar liburu-dendara / Recorta la promoción siguiendo los puntos y llévalo a tu librería elkar.



**16€**  
elkar Txartelarekin  
Con la Tarjeta elkar

# LEONARDO PADURA

**A Leonardo Padura (La Habana, 1955) el Premio Princesa de Asturias de las Letras 2015 le ha pillado con la mochila a rebosar. Carga con una admirable trayectoria compuesta por más de 20 novelas y gran cantidad de reconocimientos, entre los que destaca el Premio Nacional de Literatura de Cuba de 2012. Su última obra, *Aquello estaba deseando ocurrir* (Tusquets, 2015), acoge una maravillosa colección de cuentos con la Habana y los sueños que la habitan como principales protagonistas.**



**AQUELLO ESTABA  
DESEANDO OCURRIR**  
Leonardo Padura  
TUSQUETS

**Es el nuevo Princesa de Asturias de las Letras. ¿Cómo se siente?**


Primero, sorprendido; luego, orgulloso; ahora, responsable. Es uno de los premios más importantes del mundo... Estoy feliz.

**Aquello estaba deseando ocurrir** alberga cuentos escritos entre 1985 y 2009. ¿La decisión de publicar el libro tiene que ver con el cambio que vive Cuba hoy?

La literatura no tiene por qué seguir el pulso de la realidad mientras esta se va desarrollando. Creo que una situación en tránsito puede ser objeto de una reflexión literaria, pero se corre el riesgo de que las cosas cambien de un día para otro. Por eso es mejor esperar y trabajar sobre lo que se ha asentado, sobre lo más permanente... Y estos cuentos creo que reflejan una serie de situaciones que son permanentes y, aunque muy cubanas, a la vez universales: el drama del desarraigo y el exilio, de la fidelidad, del amor y el desamor, de la alienación del individuo, de la frustración...

**Y los cuentos respiran una melancolía muy espesa...**

Sí, son cuentos melancólicos, algunos de ellos incluso desesperados. En general son relatos de personas heri-



ARGAZKIA: ITZIAR GUZMÁN

das por la vida y por la historia, que se examinan o acútan buscando una salida posible que... muchas veces no encuentran. Yo creo que la literatura puede hablar de la felicidad. La felicidad existe. Pero los dramas humanos son definitivamente más literarios y, en mi caso, esenciales para reflejar una realidad y una experiencia vivida.

**A pesar de todo, usted optó por quedarse en Cuba.** Sí, soy un cubano total, por los cuarenta y ocho costados, aunque tenga un apellido vasco (no ocho, pero sí uno) y otro castellano, y, de contra, un pasaporte español que me fue concedido por mi trabajo cultural relacionado con España... Como escritor, más aun, soy un escritor habanero y esa circunstancia cultural, física, humana me atrapa de una manera difícil de romper, porque además no quiero romper. A veces vivir en Cuba, en lo material y hasta en lo espiritual, puede ser complicado. Faltan unas cosas y sobran otras, no precisamente buenas. Pero tengo al alcance de mis ojos y oídos todo un mundo que se me revela con todas sus connotaciones y me nutre artísticamente. Es un poco una fatalidad y también un privilegio: soy eso, un escritor cubano, y no podré ya ser otra cosa en mi vida.

**“Estos cuentos creo que reflejan una serie de situaciones que son permanentes y, aunque muy cubanas, a la vez universales”**

**En “Regreso a Ítaca”, Amadeo, el amigo que regresa, habla del “cabronazo miedo”, y también de la necesidad de estar en casa para “volver a sen-**

**tirse escritor”. Para quien no ha vivido la realidad de Cuba, vuestra historia se siente tan dolorosa... ¿Es la escritura una forma de alivio?**

La literatura puede asumirse como un alivio intelectual, sí, pero no como una vía de escape, sino todo lo contrario. Por ejemplo, a principios de la década de 1990, cuando más difícil era la situación económica del país, cuando no había comida, ni transporte, ni electricidad, yo creo que la escritura me salvó: escribí como un loco para no volverme loco, como ya he dicho antes. En esos años, mientras afuera el mundo se deshacía, yo escribí tres novelas, un libro de cuentos, un largo ensayo sobre Alejo Carpentier, dos guiones de cine... Y al resultado de ese trabajo debo todo lo que tengo, desde mi relación editorial con España a través de Tusquets, hasta este premio Princesa de Asturias del que estábamos hablando...

**Se percibe la autobiografía en sus textos. ¿Hasta qué punto es necesario vivir lo que uno escribe?**

Pues no lo sé. Creo que más bien es imposible vivir todo lo que uno escribe. Lo que importa es cómo las vivencias, las experiencias propias te sirven para iluminar la vida de tus personajes, para crear sus historias. Por supuesto, yo no he vivido la vida de Ramón Mercader, o de Trotsky, o de Rembrandt, pero lo esencial de la condición humana, el peso de la política en la existencia de los hombres, las dudas de la creación, etc., son experiencias que yo también he tenido... El resto es capacidad de observación, estudio, cierta habilidad para encontrar lo esencial en las personas y... por supuesto, una contaminación con la sociedad, una vida vivida en un contexto, pues eso que vives es también parte de tu literatura.


**TERESA SALA**  
Periodista

La entrevista completa:  
<http://bit.ly/aquello-estaba-deseando-ocurrir>



# KARMELE JAIO

**Barruak eskatzen zionari jarraituaz  
poesia kaleratu du lehenengoz  
Karmele Jaiok. Idatzi, baina,  
aspalditik idazten ditu poemak. *Orain  
hilak ditugu* izena eman dio liburuari.  
“Nolatan igaro da hain azkar  
mundua nire albotik” galdetzen  
du Ryszard Kapuscinski-k egilearen  
liburu honetan. Denboraren joana,  
bidean gertatzen diren galerak,  
norbere hutsak... Jaioen arima ikus  
litekeela esan genezake.**



**“Bakarrik gaude  
eta bakarrik joango  
gara hilobira”**

## Una sensación extraña

**La esperada  
nueva novela de  
ORHAN PAMUK**

**PREMIO NOBEL DE  
LITERATURA**

**Una historia de amor  
inolvidable.  
Una épica moderna.**



**ORAIN HILAK DITUGU**

Karmele Jaio  
ELKAR



**libbuk**  
irakurgailuan  
ere eskuragarri

### **Orain hilak ditugu.**

Izenburuak bizitzaren une konkretu bat egiten dio erreferentzia. Hor agertzen den ahotsa bizitzaren une konkretu batean dago, hain justu, inguruko zenbait pertsona hil zaizkion une horretan. Adin batetik aurrrera “normalizatu” egiten da hori, agendan dagoen zerbaitek da. Hortik aurrera bizitzaz duzun perspektiba aldatzten da, hortik aurrera konturatzten zara benetan hau oso azkar doala, eta zu hemen hondar alea baino ez zarela. Hilak agertzen dira poemetan, baina ez dut hainbeste hilei buruz hitz egin nahi izan, bizirik gaudenei buruz baizik.

### **Liburuak badu etsipena dakarren tristura bat...**

Adaptazio ezintasun bat dagoela uste dut. Lehenengo zatian inozentzia galtzearen mina agertzen da, agertzen dira barne putzuak, barneko ahultasunari begirada bat; bigarren partean harremanei buruz hitz egiten dut, agortutako harremanei buruz alde batetik, eta gero desioaren berpiztea ere agertzen da; hirugarren atalean, zenbait poematan zoom-a nigandik urrentzen dut pixka bat eta bizi naizen gizarteari begiratzen diot; eta azkeneko atalean, gizakien heriotzaz baina aldi berean bizitzaren indar infinituaz ari naiz.

### Literatur genero bakoitzeko Karmele Jaio bana dago?

Genero bakoitzak bere legeak ditu. Nire lan egiteko moduak ezberdinak dira ipuin bat, nobela bat edo poema bat idazten dudanean, baina uste dut atzean dagoena beti naizela ni. Ez istorioetan, baina bai begiradan eta ikuspuntuaren hautuarekin eskaintzen dudan iritzizko espazio horretan. Hori bai, genero batean beste batean baino eskarmentu gehiago izan dezakete, neurri batzuk modu egokiago batean moldatzeten dira nire gaitasunetara. Adibidez, badakit neurri laburra asko laguntzen didala.

### **Idazlea inoiz baino biluziago agertzen da?**

Bi aukera daude idazten jartzenean. Bata da zure etxeko egongela erakustea. Han, zuk zeure buruaz eskaini nahi duzun irudia dago. Besteak etxeko ganbara erakustea da, ezkutuan dauden gauzak, desordenatuta daudenak... Niri ganbara erakusten duten literatur lanak interesatzen zaizkit. Egia da hemengo poema batzuetan kontu autobiografiko esplizituak agertzen direla, eta hor bai dago aldea, baina eleberri eta ipuin eta neu nago, mozarrotuago agian, baina neu nago.

### **Bakardadeak aurpegi asko izan ditzake. Zure poemetan ere bai.**

Bizitzan aurrera egin ahala, zurtzasun sentsazioa areagotuz doala iruditzen zait. Inoiz guztiz babestua bizi zen pertsona zinen, eta bat-batean, zu zara zeure arduradun bakarra. Horrek ahaldunte prozesu batetik begiratuta oso interesgarria ematen du, eta da, baina bizitzaren aurreko bakardade hori beldurgarraria da batzuetan. Bakarrik gaude eta bakarrik joango gara hilobira.

**GOIZALDE LANDABASO**  
Kazetaria eta idazlea

**ORHAN PAMUK**  
PREMIO NOBEL DE LITERATURA  
*Una sensación extraña*



**Una novela destinada  
a convertirse en uno  
de los mayores logros  
del autor.**

[www.megustaleer.com](http://www.megustaleer.com)

LiteraturaRandomHouse @LitRandomHouse



Penguin  
Random House  
Grupo Editorial

# LO IMPOSIBLE por PRINCIPIO

*Literatura en euskera traducida al castellano*

Las obras literarias que se han traducido del euskera al castellano caben en pocas estanterías. El cómputo más optimista no alcanza los mil títulos. Aunque son traducciones con millones de lectores potenciales, quizás sean los lectores más cercanos quienes pueden sacar mayor provecho de ellas, porque retratan una realidad que les atañe, desde una perspectiva nueva. Incluso me atrevería a afirmar que también los lectores euskaldunes deberían perderles el miedo. Mi trabajo esporádico de traductor, la curiosidad o el afán de volver a obras conocidas de las maneras más diversas me lleva a veces a adquirir en otros idiomas, incluido el castellano, libros que ya he leído. Nunca hasta ahora me había atrevido a confesar haber leído *Los pasos incontables*, que es como Jon Juaristi tituló su traducción de *Hamaika pauso*, de Ramón Saizarbitoria. Toda su obra merece la curvatura de cualquier anaquel.

Alguna vez he regalado traducciones al castellano de obras que me han cautivado en euskera. Un regalo siempre incluye una parte de nosotros mismos y esta es una prueba fehaciente. Así, una amiga mía tiene un *Montón de gatos* (Caballo de Troya, 2012), además del suyo, y Carlos espera –aunque no lo sabe– *Biodisco*.

AINGERU EPALTZA



ARGAZKIA: JUANTXO EGAÑA

*grafías*, la colección de relatos musicados, o de música relatada, por Iban Zaldúa, de inminente aparición en Páginas de Espuma.

También llegará pronto a las librerías *Nuestra Jerusalén perdida*, la última entrega de la trilogía de Aingeru

IRATI JIMÉNEZ



Epalta sobre el Reino y la Fe en la Navarra del siglo XVI. Es un libro que me cuesta más regalar o citar, puesto que he participado en su traducción, pero no recomendar, porque los méritos de su autor a la hora de imaginar –con triste ironía– la última oportunidad de reconquistar la Navarra recién sometida son tantos que hasta pierdo la modestia profesional. Quizás el traductor, más que un traidor –o un desvergonzado–, sólo sea un hijo ilegítimo (¿de las musas?), que, como el protagonista de la saga, el bastardo Mailu, con Enrique IV, suplanta al autor durante unas semanas –lo que dure su labor– llegando incluso a alucinarse parte de su valor.

Sin embargo, leer en tu idioma algo escrito en una cultura a veces radicalmente diferente sigue pareciéndonos un milagro. Dice Mariano Antolín Rato que la traducción es una de las pocas actividades humanas en que lo imposible ocurre por principio. Se me ocurre que el local que Rosa, una de las protagonistas de *Nora*, de Irati Jiménez, publicada recientemente por Tarttalo, regenta –El Albergue de los Imposibles–, no sería un mal nombre para un taller de traductores. Esta novela, en sí, ya alberga un sinnúmero de pequeñas historias en que a menudo lo imposible ocurre por principio: una locutora nocturna de radio puede ser un vampiro; un fotógrafo puede vender su alma a cambio de fotografiar historias imposibles; una desconocida puede aparecerse en todas tus fotos; puede existir el amor y puede que no quiera otra solución.

ANGEL ERRO  
Escritor y traductor

Vuelve  
**BERNARD CORNWELL**

**EL ÚLTIMO REINO  
SAJONES, VIKINGOS  
Y NORMANDOS**





## LASTER liburu-dendan...

Elkar argitaletxeak aurki plazaratuko du Patziku Perurenaren *Hilen xarma*. Baite Pruden Gartziaaren Nafarroako auziaz eta Zaldieroaren *De Rerum Natura* 6 ere.

Pamiela argitaletxearen eskuistik etorriko dira: Jon Sarasuaaren *Bost truke eta Joseba Sarrionaindiaren Gure politikaren bilakaera*.

La estación de las flores en llamas es el título del nuevo libro de Sarah Lark, que edita próximamente Ediciones B.

Susak ezagutzen emango ditu Andoni

Urzelaiaren ipuinak, Gotzon Barandiaranen *Gidariaren okerra* nobela eta Harkaitz Canoren ipuinak.

Y los vascos se echaron al mar, de J.A. Azpiazu, será una de las novedades de Tarttalo. Y Txertoa presentará *El viaje sin fin de Juan de Arrate*, de Aitor Iraegi.

La editorial Planeta anuncia para finales de año varias novedades: Los besos en el pan de Almudena Grandes, una novela sobre la crisis económica; el nuevo libro de Carlos Argiñano, A mi manera; o Noches sin dormir, de Elvira Lindo..

Julio Verneren Kazetari amerikar baten egunaldia 2889an iragarri du Denonartean argitaletxeak. Itzulpenea, Alberto Barandiaranek egin du.

De viaje por Europa del Este recoge los viajes de un joven Gabriel García Márquez por los países socialistas, y llega de la mano de Penguin Random House. Pierre Lemaitre, Kate Morton o Manuel Rivas son algunos de los nombres que llegarán de la mano de Alfaguara.

Ramon Saizarbitoriaaren jarraitzaileek azaroan izango

dute *Lili eta biok nobela berria* irakurtzeko aukera, Ereinak iragarrita. Bestalde, argitaletxe honek Anjel Lertxundiren *Zu narrazio liburua*, Toti Martinez de Lezearen *Meli Zabaletaren sekretua* nobela eta Juan Kruz Igerabideren *Emeki setiaturik* poesia liburua dkartza.

Sua anuncia las siguientes novedades: Guía de huellas, señales y rastros de animales de Jonathan Rubines, Los mejores recorridos para conocer los Pirineos de Gorka López, o Montañas de risa de Norberto Fernández.

Haur literaturari dagokionez, Elkar argitaletxean helduko direnen artean, Geoff Rodkeyren *Tapper bikiak gerran*, Xabier Mendiguren Hiru sopranoak eta Pello Añorgaren *Olentzero eta Maridomingiren ipuina*.

Udazkena girotzeko musikarik ere badakar Elkar diskotxeak. Besteak beste, Ken Zazpiaren *Phoenicoperus diskoa*, Mikel Urdangarinaren azken lana, Izaki Gardenaken *Aurri gara eta Kantuz* bilduma hirukoitza.

# ATLAS DEL MUNDO

55 MAPAS A DOBLE PÁGINA.  
MÁS DE 4.000 MINUCIOSAS MINIATURAS  
DE 46 PAÍSES Y 6 CONTINENTES.  
UN INSÓLITO LIBRO  
PARA LECTORES INQUIETOS.

MAEVA young  
www.maevayoung.es

# NOLA BELZTU BEHAR ZURIA

IKUSKIZUNEAN ONARRITUTAKO DVD-A, KALEAN



**Joxan Artze**ren heriotzaren ataria dugu bizitza eta *Bizitzaren ataria* dukegu heriotza (Elkar) izeneko poesia liburuetako poemak oinarriz hartuta, poesia eta musika emanaldia sortu zuten iazko udaberrian Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Gillan eta Asier Sarasola deklamatzaleek. Bertan zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeit inguru errezitatu zituzten.

*Nola belztu behar zuria*, funtsezko, Joxan Artzeren poesiaren mundu zabala ahots eta doinuz jantzi nahi duen emanaldia da. Enkarguz sortu zuten egilegi, Jexux Artze kultur elkartearren eskariz, eta eskaini den lekuetan oso harrera ona izan du.

Apirilaren 24an Usurbilgo Sutegi aretoan emandako saioa bideoz grabatu zen, eta Elkar argitaletxeak DVD euskarian plazaratu du.



ARGAZKIAK: IBAI ARRIETA

**OIER GUILLAN** (Metrokoadroka)  
**ETA IMANOL UBEDA** (Bide Ertzean)



**Aurretik ezagutu arren, bostek batera lan egin duzen lehen aldia da. Nolakoa izan da elkar-lana?**

**Oier:** Gertukoa, zintzoa, erraza. Lan egiteko modu eta diziplina artistiko ezberdinatik gatoz, baina oso sensibilitate antzekoekin.

**Imanol:** Elkaren berri baguenen, baina hauxe da batera egin dugun lehen ikuszkuna. Oso atsegina izan da, eta erraz joan da gainera: ikuszkuna sortzea eta ikuszkun hori bera oholtza gainera eramatea.

**Emanaldia belaunaldien arteko zubia dela esan daiteke?**

**O:** Metrokoadroka-koeik aspalditik ezagutzen dugu. Artze: Hatsaren poesia egunean urte luzez elkartu izan gara, gure hasierako emanaldiak ikusi zituen, eta hasierako garai haietan sarritan errezitatzeko moduei buruzko aholkuak eman zizkigun. Guretzat bere poesia

eragin handia izan da, batez ere ahozkotasunarekin duen harremanagatik.

**I:** Ez gara atzera begira jarri. Eta ez dugu aspaldiko Joxan Artze ekari gogora. Gaur-gaurko poeta da kantugai hartu duguna. Bere liburu berrietan oinarritzen baita ikuszkizuna.

**Zaila izan al da Artzeren lana disziplina bakoi-zterra egokitzea?**

**O:** Esperimentazioaren bidetik joaten saiatu gara, baina poemekiko maitasun handiz jokatuz, eta Artzeren poesian topatu izan dugun umorea ere ukitu teatral batekin txertatuz. Errezitatzeko moduan Artzek transmititu izan digun musikalasunerako, jolaserako eta hitzen doinuarekiko joera errespetatzen saiatu gara.  
**I:** Artzeren poemak, tematika eta egitura aldetik, kantatzeko propio idatzi dituela uste dugu. Beraz, eskuz idatzitako poema horien arteko hautaketa bat egin dugu. Zaitasuna batez ere, aukeraketan egon da. Bi

liburuetako tematika islatu nahi genuen, eta irizpide hori jarraitu dugu. Beste irizpide bat hauxe izan da: hitzak agindu behar du, eta ez doinuak. Zentzu horretan, boza eta ahoskeria irizpide horretara egokitu ditugu. Behin aukeraketa egin ondoren, doinu bila hasi ginen.

▼  
**NAIA IRIGOIEN**  
Kazetaria

Elkarrizketak osorik:

<http://bit.ly/nola-belztu-behar-guillan>



<http://bit.ly/nola-belztu-behar-ubeda>



## ¿QUIÉN ES VICTORIA BERGMAN?

LO MEJOR QUE LE HA PASADO A LA NOVELA NEGRA ESCANDINAVA DESDE STIEG LARSSON

DESCUBRE EL FENÓMENO: MÁS DE 3 MILLONES DE EJEMPLARES VENDIDOS

«Uno no puede dejar de leer. Sus páginas se pasan a toda velocidad porque uno necesita comprobar cómo acaba imponiéndose la justicia.» *La Vanguardia*

«Erik Axí Sund se han convertido en el nuevo Larsson. Los reyes del psico-noir sueco.» *El Mundo*



A la venta  
el 10 de septiembre



Penguin  
Random House  
Grupo Editorial

[www.megustaleer.com](http://www.megustaleer.com)  
Síguenos en [www.reservoirbooks.com](http://www.reservoirbooks.com)  
ReservoirBooks @ReservoirBooks



INFO +: [WWW.ELKAR.EUS/ARETOA](http://WWW.ELKAR.EUS/ARETOA)

Agenda osoa eskura:



<http://bit.ly/elkar-aretoa>

## Uria / Octubre:

### Donostia (Fermin Calbeton 21):

**30** – 18:30H:

Xabier Arrizabal + Mariano Ferrer  
Gaurkotasun politiko-ekonomikoari  
buruzko solasaldia / Tertulia sobre la  
actualidad político-económica

**22** – 18:00H:

### Bilbo (Licenciado Poza 14):

Celina Ribechini "Retazos y pinceladas.  
*Historia en Euskal Herria. 1931-1975*"  
Liburu aurkezpena / presentación del libro

**30** – 18:30H:

Salvador Robles  
"A la sombra de un tilo"  
Liburu aurkezpena / presentación del libro

### KOADERNO MARGO MARATOI EKOLOGIKOA

Uriaren 3an Gasteizen elkartuko gara, Habitataren Nazioarteko Eguna-rekin bat eginez.  
Marraztea gustuko baduzu, zuk jarri talentua eta beste guztia gu arduratuko gara.  
Zatoz Vitoria-Gasteiz marrazteria!




### MARATÓN ECOLÓGICO DE DIBUJO EN CUADERNO

El 3 de octubre nos juntaremos en Vitoria sumándonos al Día Mundial del Hábitat. Si te gusta dibujar, sólo tendrás que poner tu talento. De todo lo demás nos ocupamos nosotros.  
¡Ven a dibujar a Vitoria-Gasteiz!




[www.ekosketch.eus](http://www.ekosketch.eus)



Una historia personal  
de insólita humanidad.

Un Henning Mankell  
de carne y hueso.


TUSQUETS  
EDITORES



[www.tusquetseditores.com](http://www.tusquetseditores.com)

# JON ALONSO

**Lehenengo *Camembert helburu liburu ederrean ezagutu genuen Enekoitz Ramirez "Lanbas" euskal literaturaren panoramara itzuli da. Ertzainak, prostitutak, unibertsitate irakasleak, euskaltzainak, mossoak eta mota guztietako hondakinak agertuko zaizkigu Jon Alonsoren *Hiri hondakin solidoa* nobela berrian.***



**HIRI HONDAKIN SOLIDOAK**  
Jon Alonso  
TXALAPARTA



**“Gaur egungo ustelkeria giroan ez da zaila imajinatzea nirea bezalako pertsonaia bat”**

generoaren espirituarri traizioa egitea da. Aldiz, gaur egungo ustelkeria giroan ez da zaila imajinatzea nirea bezalako pertsonaia bat —badaude-eta—, zuk esaten duzun bezala, “gaizkile” bat, beharbada komillarik gabe.

**Aurreko liburuan, Zintzoen saldoan, ia erligio bihurtu den sukaldaritzaren inguruko trama batean murgildu zenuen Lanbas. Oraingo honetan, Euskaltzaindia eta euskaltzain santoralara duzu hizpide... hain iluna al da ba euskara akademikoaren mundua?**

Hain iluna iruditu al zaizu? Dena den, garbi gera bedi nik ez dudala batere ezagutzen euskara akademikoaren mundua, edo behintzat Euskaltzain-

diarena, denek derrigor onartu beharreko arau-multzoaren mundutik haratago, eta hori ere ez aski ongi, zorionez.

**Liburuaren hasiera, ezohikoa bezain lilituragarria da. Irudi horrek jarri zuen abian liburua edo idazten hasi eta beranduago otu zitzaizun?**

Irudi horrek jarri zuen abian liburua. Ez nuke transzendentala jarri nahiko, eta ez nuke aprobetxategi izan nahiko, baina irakurtzen baduzu *Moroak gara behelaino artean?* liburuko azken sarrera (“Euskal literatura?” izenburua duena), konturatuko zara han planteatzen denaren beste aldea bezala uler litekeela eszena: hau da, zer emango luke euskal kultura autoerreferentzial eta beregain baten historiak? Dena den, hau bera ere *a posteriori* bilatutako aitzakia bat da, eszena idatzit nuenean ez nuen hori buruan, are, baliteke *Moroak* artean irakurri gabe edukitzea ere.

**Pasadizo ugaritan, Euskal Herritik atera duzu trama, Kataluniara hain zuzen ere; zer erantzen dio tramari Mediterraneoaren usainak?**

Batetik, ez dakit oso ongi zergatik baina gogoa eduki ohi dut, lehen ere bai, kontakizunak Euskal Herritik ateratzeko. Gure ohiko konplexuak aienatzeko modu bat izango da, ausaz. Eta hartaraz gero, zer tokি hobe Bartzelona baino, batzuek miretsi edo gutxienez aintzat hartzent dugun nobela beltz mota jakin baten sorlekua...

**Enekoitz Ramirezek ba al du kasu berririk eskuartean?**

Bai, badu. Are, ez dut uste kasu falta edukiko duenik erretreta hartzea erabakitzuen duen egunera arte.

**KOLDO ALMANDOZ**  
Zinegilea

**Polizia edo detektiveak nagusi diren nobela beltzaren generoan, zure pertsonaiak, Enekoitz Ramirezek, ezohiko ikuspegia bat eskaintzen digu. Nola otu zitzaizun ikerketak “gaizkile” baten esku uztea?**

Ameriketako 1930. urte inguruko nobela beltzeko ikertzaile pribatu arketipikoa beste geografietan txertatzea, hainbat urte geroago, gainera, beti izan da kezka-iturri generoa, hala edo nola, landu nahi izan dutenentzat. Transposizio errazena ikertzailea polizia bihurtzea da; baina hori, niretzat,

**LA GUÍA VERDE MICHELIN**  
LA GUÍA QUE TE LLEVA MÁS LEJOS



**MICHELIN**  
La mejor forma de avanzar



-5%


Jolas guztietañ **elkar** txartelarekin  
En todos los juegos con la tarjeta **elkar**

Ikasturtearen hasierarekin batera berrikuntzak datoñ **elkar** liburu-dendetara. Aurten ere, mota guztietañ jolas hezigarrien nobedadeak aurkituko dituzu gure eskaintza zabalaren barruan.

Azken urteetan eskaintzen ari garen jolasen haurren garapenerako aukera bikainak eskaintzen dituzte, pedagogikoak izateaz gain, jarduera suspergarri, sozializatziale eta dibertigarriak baitira.



## elkar Jolasak



**LILI EDER**  
HABA-elkar  
3-6 urte

Lili Eder ardiari ahalik eta lore gehien jasotzen lagundu beharko diogu. Dado-joko koloretsua.




**LEHEN  
FRUITU-BARATZEA**  
HABA-elkar  
+2 urte

Egurrezko piezas osatutako jolas, txikien trebetasuna lantzeko egokia.



**CATAN**  
DEVIR  
+8 urte

Estrategia eta negoziatzeko gaitasuna lantzen dira jolas honetan. Catan izeneko uhartearen herriak, errepeideak eta beste sortu behar dira.



**KAOSA  
HAURREN LOGELAN**  
HABA-elkar  
+4 urte

Logelan desagertutako gauza guztiak ahalik eta azkarren aurkitu beharko ditugu. Erreakzio-joko kaotikoa.



**EGUTEGIA**  
elkar  
+4 urte

Egunero polit honetan, data, ze eguraldi egiten duen eta eguneko eginbehar garrantzitsuenak ipini beharko dituzu, eranskailuak jarri eta kenduz.



**GURUTZEGRAMA-  
SILABADUNAREN  
MISTERIOA**  
HABA-elkar  
+5 urte

Kutxa gotorra irekitzea da karta-jolas dibertigarri honen helburua. Argitu kasua burua erabiliz eta hizkuntza-senari jarritzu.

**MARBOTIC**  
MARBOTIC  
+3 urte

Teknologia eta jolas tradizionalak modu dibertigarrian uztartzen dira. Zure tabletean egurrezko zenbakiek bere lekuak ipini, eta zenbatzen ikasten lagunduko ditzu. 1, 2, 3... aurrera!




Informazio gehiago: <http://bit.ly/jolasak>





# Ríos con alma



El poeta soñó que el río le hablaba, que le decía: "Tú que puedes, vuélvete". Sueño o quimera, lo cierto es que nos gusta volver a los ríos, retornar a sus riberas a ver el mismo río de siempre, siempre distinto.

Los hay de todos los tipos. Enérgicos y abúlicos, humildes y altivos, dóciles y salvajes, directos y enrevesados. Incluso uno solo puede ser todos ellos, según el día o la edad con la que lo cojamos. Porque los ríos tienen edad, y algunos no pasan nunca de tiernos infantes mientras que otros han mudado muchas veces de piel. Todos ellos son los protagonistas de *Los ríos más bellos*, el nuevo libro de la colección Euskal Herria.

